2.- Deialdia, 2015eko martxoaren 27an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean, lizitaziora bi enpresa aurkeztu ziren: SERVICIOS DE COLABORACIÓN INTEGRAL, S.L. eta GEMUNPAL, S.A.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, ontzat eman zen lizitatuak aurkeztutako dokumentazioa.

4.- 2015eko maiatzaren 4an, B kartazalak irekitzeari buruzko ekintza burutu zen eta beraien 2015eko maiatzaren 6an Kontratazio Mahaia ondorengo txostena eman zuen:

“2 irizpidea: Memoria (40 puntu gehienez):

- a) 25 puntu gehienez: Zerbitzua emateko modua, udal bulegoetan presentziazko ordutegiaren zehaztapena, kontratuaren arduradunak zerbitzua emango duen modua eta ordutegia.

Puntuazio horren banaketa jarrian aipatzen den moduan egin da eta esaten diren arazoengatik:

- Zerbitzua emateko modua: 10 puntu.
- Udal bulegoetan presentziazko ordutegiaren zehaztapena: 5 puntu.
- kontratuaren arduradunak zerbitzua emango duen modua eta ordutegia: 10 puntu.

Lehenengo eta hirugarren atalei puntuazio berdina ematea erabaki da, zerbitzua emateko modua garrantzitsua izanik (gehienetan prozedura reglatuak dira), kontratuaren arduradunak zerbitzua emango duen moduak eta ordutegiak ere garrantzi handia du, zeren eta sortzen diren zailtasun, zalantza eta ohikoak ez diren prozedurak bere aholkularitza, parte-hartzea, ikuskapena, dedikazioa etb., eskatzen dute.

Presentziazko ordutegiari 5 puntu ematen zaio: Esleipendunaren betebeharren artean, jendaurreko informazioa eta zergadunekiko arreta, Udalaren jendaurreko zerbitzuaren ordutegia beteko duen ordutegian, azaltzen da. 5 puntu presentziazko arretari ematen zaio.

Lizitatuzaileek aurkeztutako Memoria aztertu ondoren, a) atalaren 1. puntuan lortutako puntuazioa honako hau da.

- SCI: 8 puntu.
- GESMUNPAL: 10 puntu

Kontratuaren helburua betetzeko ezinbestekoa denez, euskararen udal ordenantza kontutan izatea, SCI enpresak, ez du horri buruz ezer aipatzen eta ez ditu ezta ere, inprimakiak elebidunez aurkezten. GESMUNPAL enpresak inprimakiak elebidunez aurkezten ditu.

Lizitatuzaileek a) atalaren 2. puntuan lortutako puntuazioa:

- SCI: 5 puntu.
- GESMUNPAL: 5 puntu.

Bi lizitatuzaileen presentziazko arreta, Udaletxean ematen denarekin bat dator.

Lizitatuzaileek a) atalaren 3. puntuan lortutako puntuazioa:

- SCI: 5 puntu.
- GESMUNPAL: 10 puntu.

SCI enpresak, ez du garbi adierazten nor den kontratua exekutatzeko arduraduna. Ulertzen dugu, "como "delegado coordinador general del Proyecto" bezala identifikatzen dena dela. Pleguan eskatzen den titulazioa du, baina ez du definitzen Udalarekin nola erlazionatuko den eta ezta ere zein maiztasunarekin etorriko den udaletxera eta azken xehetasun hau, lehen azaldu denaren arabera, funtsezkoa da eta baloratzeko gai dena.

GESMUNPAL enpresak izendatzen duen kontratuaren arduraduna, nominatiboki identifikatuta dago, pleguan eskatzen duen titulazioa du eta aurkezten den Memorian testualki esaten da, “acudirá al centro de forma regular para resolver expedientes y recursos, además de realizar los trabajos de recaudación y gestión de sanciones cuando el resto del equipo está ausente”. Oso positibotzat jotzen da, kontratu arduradunaren udaletxera erregulariki etortzeko konpromisoa, udal langileekin batera izapidetzen ari diren espedienteekin sortu daitezkeen arazoak modu eraginkorrean aztertu eta ebazteko.

- b) 15 puntu gehienez: Enpresa lizitatuak jartzen duen programa informatikoaren ezaugarriak baloratuko dira, bereziki Zergabilketako IZFE programarekin duen bateragarritasuna datuen migrazioarako.

Ulertzen dugu bi enpresek dituzten programa informatikoak balio dutela, baina beraien arteko diferentzia ondorengoan datza:

SCI. Zigorzaile prozedura osotasunean garatzen duen aplikazio informatikoa du.

GESMUNPAL. Adierazten du, isunen prozedura, osotasunean IZFEren bidez kudeatuko duela

Horrekin guztiarekin, lizitatuak b) atalaren lortutako puntuazioa honako hau da.

- SCI: 10 puntu.
- GESMUNPAL: 15 puntu

3. irizpidea: Hobekuntzak (10 puntu gehienez)

Zerbitzuaren eraginkortasun, kontrol eta gardentasun handiagoan eragingo duten proposamenak.

Atal honetan erabaki da inori puntuaziorik ez ematea, kontsideratzen delako enpresek aurkezten dituzten hobekuntzak, Udalarentzak ez direla interesgarriak, kontratuaren helburuarekiko.

ENPRESAK / EMPRESAS	Memoria a)	Memoria b)	Hobekuntzak / Mejoras	GUZTIRA / TOTAL
SCI	8+5+5	10	0	28
GESMUNPAL	10+5+10	15	0	40

2015eko maiatzaren 7an, C kartazala (proposamen ekonomikoa) ireki da eta emaitza ondorengo izan da:

1.- SERVICIOS DE COLABORACIÓN INTEGRAL, S.L.

A) Borondatezko bideko bilketa:

A.1.- Kobratutakoaren %30era arte.

B) Betearazpideko zergabilketa:

B.1.- Dirutan jasotako zenbatekoen printzipalaren gaineko %17,50raino, BEZ kanpo.

B.2.- Berandutza Korrituak: Betearazpideko epealdian dirutan kobratutako berandutza interesen %0raino, horren kalkulo, likidazio, notifikazio eta kobrantzarako esleipendunak gauzatutako gestioen kontraprestazio moduan (BEZ kanpo).

B.3.- Kobraketa espezieetan gauzatzen bada, jasoko den kopurua, aurreko ehunekoaren aplikazioaren arabera kalkulatu da, baina beti ere, bi kontzeptuen gehiaketak 18.000,00 euroko gehiengo muga izango du (BEZ kanpo).

2.- GESMUNPAL, S.A.

A) Borondatezko bideko bilketa:

A.1.- Kobratutakoaren %25era arte.

B) Betearazpideko zergabilketa:

B.1.- Dirutan jasotako zenbatekoen printzipalaren gaineko %20raino, BEZ kanpo.

B.2.- Berandutza Korrituak: Betearazpideko epealdian dirutan kobratutako berandutza interesen %0raino, horren kalkulo, likidazio, notifikazio eta kobrantzarako esleipendunak gauzatutako gestioen kontraprestazio moduan (BEZ kanpo).

B.3.- Kobraketa espezieetan gauzatzen bada, jasoko den kopurua, aurreko ehunekoaren aplikazioaren arabera kalkulatu da, baina beti ere, bi kontzeptuen gehiaketak 18.000,00 euroko gehiengo muga izango du (BEZ kanpo).

Baldintza pleguaren 16. artikuluan adierazitako moduan, proposamen ekonomikoak baloratu ondoren, lortutako emaitza ondorengoa da:

ENPRESAK / EMPRESAS	Borondatezkoa / voluntaria	Exekutiba / ejecutiva	Interesak / intereses	GUZTIRA / TOTAL
SCI	5	2,5	40	47,5
GESMUNPAL	10	0	40	50

Irizpide guztien puntuak batu ondoren emaitza ondorengo da:

ENPRESAK / EMPRESAS	1. irizpidea / criterio 1	2. irizpidea / criterio 2	Hobekuntzak / Mejoras	GUZTIRA / TOTAL
SCI	47,5	28	0	75,5
GESMUNPAL	50	40	0	90

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiaik Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo Udalaren trafikoko eta TAOko multen borondatezko bilketa eta tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrereren betearazpideko zergabilketarako elkarlana burutzea, GESMUNPAL, S.A.ri esleitzea, berak aurkeztutako proposamenaren arabera,

Bigarren. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, 2015-09-04tik kontatzen hasita, izan ere data horretan amaitzen da aurreko kontratua. Kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango da. Luzapen erabakia urtez urtekoa eta zehatza izan beharko du.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 9.668,31 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Azpikontratazioari buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautze dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako 227 artikuluaaren arabera.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- BARATZE PARKEAREN PROIEKTUA: onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, baratze parkearen proiektua, 48 arean kokatzen dena eta 256.385,65 €ko (BEZ barne) aurrekontua duena, onartzeko proposamena eginez.

Eremu horretako lurren jabeak, Beasain Lantzen S.A. eta Jesus M^a Echeverria Bengoechea jauna dira, baina eremu horretatik abiadura handiko tren pasatzea aurreikusita dagoenez, 2011. urtean, ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIASek (ADIF), jarraian aipatzen diren lursailetan ondorengo desjabetzea burutu zuen:

Finka	Desjabetzea	Erret eskubidea	Denboraldirako okupazioa (m²)
H-20.0198-0302 (Beasain Lantzen, S.A.rena)	6.011	2.999	15.875
H-20.0198-0304 (Jesus M ^a Echeverria Bengoechea)	122	93	482

2015eko maiatzaren 11n Beasain Lantzenek egindako Administrazio Kontseiluan onartu zen, Udalari baimena ematea 48 areako Soziedadearen lurrak baratzetarako erabiltzea, urbanistikoki eremu hori garatu behar ez den bitartean.

Proiektu honen berri, ADIFI eta Jesus M^a Echeverria Bengoechea jaunari ematea proposatzen da, beraiei ere aukera emateko proiektuaren inguruan zerbait esan nahi izanez gero.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du baratzak jartzearekin ados dagoela, baina ez proiektuarekin baratzak hiri lurzoru industrialean kokatzen direlako eta ez direlako baratza sozialak.

Josi Insausti jauna (H1) ere proiektuaren aurka azaldu da.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE eta ARALAR).
Aurkako botoak: 2 (EAJ, H1)
Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Baratze Parkearen proiektuari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Proiektuaren berri, ADIF eta Jesus M^a Echeverria Bengoechea jaunari ematea, afektatuak izan daitezkeelako, hogeit eguneko epea emanaz alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez bada aurkezten, proiektua behin betiko onartua geratuko da.

5.- HITZARMENA. ARTEAGA FUNDAZIOArekin (KUTXA EKOLOGUNEA) hitzarmena onartzea eta sinatzea.

Jarraian transkribatzen den hitzarmena onartzea eta Alkate jaunari baimena ematea proposatzen da:

"LANKIDETZA-HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik, Mikel Insausti Muguruza jauna, ARTEAGA FUNDAZIOAren izenean (hemendik aurrera KUTXA EKOLOGUNEA).

Bestetik, Koldo Agirre Mujika jauna, BEASAINGO UDALEKO alkate-batzarburua, Udalaren izenean, bere funtzioen jardunean.

Bi aldeak dokumentu hau formalizatzeko bildu dira, eta aurrekari hauek adierazi dituzte:

AURREKARIAK

Lehena: *Kutxa Ekogunea ingurumen eta hizkuntza kudeaketa irizpide ekologikoak txertatzen dituen BARATZE PARKE SAREA izeneko baratze ekologikoen sarea bultzatzen ari da Gipuzkoan.*

Bigarrena: *Bi aldeek elkarrekin lan egin nahi dute BEASAINGO BARATZE PARKE proiektuan, Beasaingo udalerrian erabilera publikoa izango duten baratzeak sortzeko helburuarekin; hala, BEASAINGO BARATZE PARKEA sortuko da eta BARATZE PARKE SAREko kide bat izango da.*

Hirugarrena: *Beasaingo Udalak, Kutxa Ekogunearen aholkularitza eta irizpideak jarraituaz, proiektua eta aurrekontua landu ditu.*

Laugarrena: *Proiektua hasi eta bukatu arteko fase guztiak garatzeko nahia eta BARATZE PARKE SAREAn integrazteko nahia adierazi dute bi aldeek.*

Eta horretarako, lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatu dute, ondorengo klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehena: *Bi aldeek, elkarrekin adostuta, beren betebeharren oinarri gisa BEASAINGO BARATZE PARKEA proiektua ezagutzen dute, eta bukaeraraino gauzatzeko konpromisoa hartu dute, zeinahi dela ere bukatzeko beharko diren faseen iraupena. Hitzarmen honen eranskin gisara proiektuaren ardatz nagusiak, Baratze Parkearen antolamendu planoak, ardatz nagusiak, Sareko Baratze Parkeei eskaintza orokorra, euskarri identifikatiboaren diseinu-eredua eta Beasaingo Baratze Parkerako erremintak zehazten dira.*

Bigarrena: Kutxa Ekoguneak lankidetzeta-hitzarmenaren barruan betebeharrak hauek onartzen ditu:

1. Betebeharrak tekniko eta ekonomikoak:

- BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko eta behin martxan egotean, egoera egokia bermatzeko, eranskineko "Sareko Baratze Parkeei Eskaintza Orokorra"-n zehazten diren zerbitzuak eskainiko ditu.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko behar den finantzaketan parte hartzea I ERANSKINEAN adierazten denaren arabera izango da
- BEASAINGO BARATZE PARKEKO lursailak esleitu aurretik, tekniko bat bidaliko du Kutxa Ekoguneak, BEASAINGO BARATZE PARKEko lurren egoera gainbegiratzeko. Behar izanez gero, lurraren egoera hobetzeko plangintza eskainiko dio Udalari, beti ere, erabiltzaileek baratzezaintzarako lur egokiak jaso ditzaten.
 - Urteko kuota (II eranskinaren arabera izango da) bitan zatituta kobratuko da (urtarrilean eta uztailean). Horretarako, Baratze Parke Sareak, epe bakoitzari dagokion faktura igorriko du eta Udalak legez ezarritako epearen barruan ordainduko du.
 - BARATZE PARKE SAREko lehenengo urteari dagokion kuota, inaugurazio egunetik hasi eta urte bukaeraren artean epeari dagokion zati proportzionala ordainduko da. Ondorengo kuotak urtez-urte ordainduko dira bi zatitan, urtarrilean eta uztailean.
 - Hirugarren urtea betetzera doanean, Kutxa Ekoguneak BEASAINGO BARATZE PARKEari sarearen kidea jarraitzeko aukera eskainiko dio, eta hala adostuz gero, adostasunaren baldintza berriak jasoko duen dokumentu berri bat sinatuko dute bi aldeek.

2. Komunikazio arloko betebeharrak:

- BEASAINGO BARATZE PARKEarekin lotutako agiri eta dokumentuetan Udalaren zigorria ezarriko du Kutxa Ekoguneak.
- BEASAINGO BARATZE PARKEarekin lotutako komunikazio eta difusiorako ekimen guztiak (prentsa oharrak, prentsaurrekoak, etab.) jakinaraziko dio Beasaingo Udalari, zabalkundea modu koordinatuan eta elkarlanean jarduteko asmoz.
- Kutxa Ekoguneak BARATZE PARKE SAREko kanpaina orokorraren euskarri identifikatiboaren kudeaketa bere gain hartuko du (diseinu lanak eta erabilera irizpideak), betiere udal bakoitzaren beharrei egokitzuz.
- Medioekiko zein gizarteari zuzendutako ekimen guztietan Kutxa Ekogunea BARATZE PARKE SAREA proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile bezala azalduko da, udalerririk BARATZE PARKE SAREA proiektuarekin bat egiten duenak.
- BEASAINGO BARATZE PARKEko baratzezainen datu pertsonalak hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeek eskuetan izango dira, BARATZE PARKE SAREko zerbitzuak egoki kudeatzeko. Ondorioz, Kutxa Ekoguneak BEASAINGO BARATZE PARKEko baratzezainen datu pertsonalak

erabiltzeko eskubidea izango du, beti ere, Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa beteaz.

Hirugarrena: Beasaingo Udalak lankidetzaz-hitzarmenaren barruan betebeharrak hauek onartzen ditu:

1. Betebeharrak tekniko eta ekonomikoak:

- *BARATZE PARKE SAREko ekologia irizpideak -ingurumenari eta hizkuntza-ekologiari dagozkionak- betetzea eta BEASAINGO BARATZE PARKEko Araudian txertatzea.*
- *BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko lanak bere gain hartuko ditu, Kutxa Ekogunearekin adostuta.*
- *Baratzezaintzarako lur egokiak direla bermatuko du Udalak, lurren drainatzea, testura eta emankortasuna kontutan edukiz proiektuaren hasieratik. Udalak lurrak aztertuko ditu eta emaitzen arabera, proiektuan eta obretan, beharrezko lanak txertatuko ditu, lursailak baratzezainei eman aurretik, lurrak egoki landuta eta ongarrituta egon daitezen, iragazgaitz-arazorik gabe.*
- *Beasaingo Udalak euskarri korporatiboaren eta seinaletikaren instalazio-lanak bere gain hartuko ditu, nola materialen kostea.*
- *BEASAINGO BARATZE PARKEaren egoera egokia bermatzeko, honek beharke dituen zerbitzu orokorrak eta bestelako beharrak aztertuko du, beharrei erantzunak bilatuz.*
- *Hitzarmena izenpetzen den egunetik kontaktzen hasita urtebete pasatzen bada Baratze Parkea gauzatzeko obrak amaitu gabe, Beasaingo Udalak Kutxa Ekoguneari itzuli egingo dio jasotako diru-laguntza osoa.*
- *Hasierako bilera bat antolatuko du Udalak, baratzezain guztiekin. Bertan, arautegiaren berri emango du Udalak, eta baratzezainak taldekatuko ditu, lehenengo trebakuntza ikastaro saio desberdinetarako konbokatuz. Ikastaroaren saio bakoitzak 20 eta 30 arteko pertsonak parte hartuko dutelarik.*
- *Baratze Parkea inauguratzeko, lursailak esleituta egongo dira gutxienez %75ean.*
- *BARATZE PARKE SAREan egongo da, gutxienez lehenengo 3 urtetan, Baratze Parkea inauguratzeko egunetik kontaktzen hasita.*
- *Udaleko teknikari bat izendatuko du, BEASAINGO BARATZE PARKEaren aldi behingo ikuskapena egiteko eta BARATZE PARKE SAREaren koordinazioaz arduratzen diren Kutxa Ekoguneako langileekin solaskide izateko.*
- *Baratze Parkea beti beteta egon dadin eta baratzeak uzten dituzten kideak ordezkatzeko, eskatzaileen poltsa bat egunean edukiko du.*
- *Udalaren eta baratzezainen arteko kontratua amaitutzat emango du, azken horiek BEASAINGO BARATZE PARKEko Araudia betetzen ez badute.*

2. Komunikazio arloko betebeharrak:

- *Beasaingo Udalak Baratze Parkeko lursailen esleipen-emaitzak publikoak egingo ditu.*

- BEASAINGO BARATZE PARKEAk Kutxa Ekoguneak landutako euskarri identifikatiboa izango da baratzetako identifikazio-euskarri bakarra, bertan, Kutxa Ekogunearen eta Udalaren zigiluak agertuko dira.
- Baratze Parkearekin lotutako agiri eta dokumentuetan Kutxa Ekogunearen zigilua ezarriko du Udalak proiektuaren bultzatzaile gisa.
- Komunikazio eta difusiorako ekimen guztiak (prentsa oharrak, prentsaurrekoak, etab.) jakinarazioko dio Kutxa Ekoguneari, zabalkundea modu koordinatuan eta elkarlanean jarduteko asmoz.
- Medioekiko zein gizarteari zuzendutako ekimen guztietan Kutxa Ekogunea BARATZE PARKE SAREA proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile bezala azalduko du Beasaingo Udalak, udalerririk BARATZE PARKE SAREA proiektuarekin bat egiten duenak.
- BEASAINGO BARATZE PARKEko baratzezainen datu pertsonalak hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeek eskuetan izango dira, BARATZE PARKE SAREko zerbitzuak egoki kudeatzeko. Ondorioz, Beasaingo Udalak Kutxa Ekogunearekin baratzezainen datu pertsonalak konpartituko ditu, beti ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa beteaz eta lursaila eskuratuko duten baratzekideen baimena izanez.

Laugarrena: Kutxa Ekoguneak udalarekin batera gainbegiratuko du proiektuaren eta bere faseen gauzatzea. Aldi berean, proiektua gauzatu edo betearaztea Beasaingo Udalaren erantzukizuna izango da.

Bosgarrena: Agiri honetan agertzen ez diren klausulei dagokienez, Kutxa Ekoguneak eta Beasaingo Udalak eranskinetan ezarritakoa beteko dute.

Bildutakoak ados daude agiri honetako aurrekari eta klausulekin, eta izenpetu egin dute.

Sinadura: Kutxa Ekogunea

Sinadura: Beasaingo Udala

Donostian, 2015ko maiatzaren ---

PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIAK

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Aisialdi aktiboa sustatu.
- Hiri, herri, auzo, eta abarretako bizitza kalitatea hobetzeko gune berri bat sortu.
- Nekazaritza ekologikoa bultzatu.
- Baratzeen erabiltzaileengan eta, bereziki, haurrengan, naturarekiko errespetua sustatu (energia berriztagarriak, bioaniztasuna, etab.).
- Gizarte-talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak bultzatu, gizonen eta emakumeen arteko proportzioak zaindu, belaunaldi ezberdinen arteko hartu-emana bultzatu, arazoak dituzten giza taldeei lagundu.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA, BARATZE PARKE SAREAn barruan sartu.

PROIEKTUAN TXERTATEA GOMENDATZEN DIREN GAIAK

- Baratzak emateko irizpideak udal bakoitzak ezarriko dituen arren, Baratze Parke bakoitzean era guztietako jendea biltzeko eskatuko die Kutxa Ekoguneak: jubilatuak eta gazteak, gizon eta emakumeak, elkarteak eta eskolak, elbarriak, eta abar.
- Herriko ikastetxe, elkarte eta erakundeen partaidetza sustatu, Baratze Parkeko lursailak zuzenean eskainiz.
- Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzat gordetako lursailak euren beharretara egokitu: aparkalekua, sarbideak, saila bera, ureztaketa sistema, ereiteko zona eta beharrezkoa den guztia.
- Genero ikuspegitik gizonen eta emakumeen arteko proportzioa mantentzeko, genero bakoitzaren eskaera-kopuruaren portzentajearekiko proportzionalki banatu lursailak.
- Erakunde sustatzaile bakoitzaren helburuen arabera, esleipen-irizpide desberdinak finkatu ahalko dira zenbait kolektiboren alde egiteko: gizarte-egoera ahuleko familiak, elkarteak, e.a.
- Laborantza-lurra egoki zaion altueran, tutu malguen bidez egindako ureztatze-sistema, etab.).
- Baratze Parkeko hondakin organikoen konpostaketa bermatu, baliabideak jarriz, baratzetako erabiltzaileak gauzatu dezaten.

SAREKO BARATZE PARKEEI ESKAINTZA OROKORRA

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 1. FASEAN (PROIEKTUAN)?

- *Proiektua eta sarearen informazioa (bilerak+dokumentazioa+weba+parkeetara bisitak, ...).*
- *Baratze Parketarako jasagarritasunarekin lotutako irizpideak eta Udalari lagundu proiektuan txertatzen.*
- *Baratze Parkeko diseinurako laguntza teknikoa. Hitzarmena sinatu Udalarekin.*
- *Hitzartutako diru laguntza luzatu ⁽¹⁾*
- *Lursailak esleitzeko irizpide eredu desberdinak.*
- *Araudia ereduak .*

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 2. FASEAN (BARATZEA ERAIKITZEAN)?

- *Obra hasiera eta bukaerako ikuskaritza.*
- *Lurraren ikuskaritza eta aholkularitza (lur analisiak ere).*
- *Baratze Parke sarreran jarriko den Sareko panelaren edukiak, diseinua eta exekuzioa.*
- *Proiektua herritarrei aurkeztu*
- *Baratzekideen Elkarteak gauzatzeko ereduak.*
- *Herriko Baratze Parkeko erabiltzaileei « Baratzezain haz(s)i berriak : Nekazaritza iraunkor baterako lehen pausoak» ikastaroa Ekoguneak doanik eman eta kostea jaso.*
- *Baratze Parkeak eskatzen dituen mantenu lanen identifikaziorako laguntza.*
- *Ekoguneko "Funtzionamendu Gida" eskaini Udalari, eredu gisa.*
- *Baratze Parkearen inaugurazioa antolatzen lagundu.*

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 3. FASEAN (BARATZE PARKEA MARTXAN)?

- *Udalak eta Baratzekideen Elkarteak Baratze Parke Sareko bileratan parte hartzeko aukera (urtean bi): urteko plangintzari buruz informazioa, Sarearen zerbitzuak hobetzeko proposamenak, informazioa trukaketa...*
- *Furgobaratzaren bitartez, 9 aldiz/urtean:*
 - o *Baratzaren ikuskaritza hileroko (azpiegiturek eta baratzen egoera), txostena bidaliz Udalari eta Elkarteari.*
 - o *Aholkularitza zuzena baratzekideei.*
 - o *Landare ekologiko eta baratzetako produktu ekologikoen salmenta zuzena.*
 - o *Sareko eskaintza desberdinen komunikazioa.*
- *Bellotaren erremintak, merkatu prezioarekin alderatuz, %35a merkeago.*
- *Ekitaldi-pack-ak: gai baten inguruko tailer praktikoa + haurrentzako ekimena + azoka... jai giroan.*
- *Baratze Parketara egokitutako aseguruak*
- *Baratze Parketara egokitutako formazioa zerbitzua, prezio murriztuetan (tailer motzak, ikastaroak...).*
- *Konposta egina eta egituratzailea, baratzetako hondakinekin konposta egiteko. SASIETA*
- *Baratzetako lan-zerbitzuak: material organikoa txikitu; lurren prestaketa-lanak, inguruko landaretzaren garbiketak*

- Baratze Parke Sareko webaren partaidetza: informazio eguneratua (sasoi-sasoikoa), foroa, aholkularitza zuzena, e.a.
- Auzolanak bultzatzeko aktibitateak.
- Ekoguneko baliabideak: ikasgelak, karpak, bilera gelak...
- Ekoguneko kanpainak herrian gauzatzeko erraztasunak.

I ERANSKINA

Ekoguneren laguntzak (gorriz, BEASAINko kasua):

Baratzeako partzela kopurua	Laguntza	Laguntzaren banaketa		
		Sareko panela	Baratzeako erremintak	Dirua
100 edo gehiago	14.700 €	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 14.700 € arte gelditzen dena
66-99	12.870 €	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 12.870 € arte gelditzen dena
40-65	11.040 €	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 11.040 € arte gelditzen dena
30-39	7.350 €	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 7.350 € arte gelditzen dena
30 baino gutxiago	6.500 €	1.265 €	36,92 € x partzela	Aurreko bi kontzeptuak kenduta,

			<i>kopurua</i>	6.500 € arte gelditzen dena
--	--	--	----------------	-----------------------------------

II ERANSKINA

Sarearen partaidetzaren urteko diru kuotak (3 urtetarako konpromisoa). Gorriz BEASAINko kasua:

Baratzeko partzela kopurua	Baratze Parketako urteko kuotak, ikuskaritza arruntarekin	Baratze Parketako urteko kuotak, furgobaratzaren zerbitzua barne (ikuskaritzak eta besteak)
<i>100 edo gehiago</i>	4.900 €	6.351 €
66-99	4.290 €	5.541 €
40-65	3.680 €	4.759 €
30-39	2.450 €	3.759 €
30 baino gutxiago	2.000 €	2.874 €

BEASAINGO BARATZE PARKERAKO ERREMINTAK

BEASAINGO BARATZE PARKEA: 100 lursail					
Erremintak	Beltotaren modelo	Parkeko erreminta kopurua	€/Unitatea	€ denatara	%35ko deskontua aplikatuta koste finala (€)
Karretilak	WB 2004 STEEL WHEELBARROW	13	66,1	859,3	558,55
Ureztailuak	WN 28005 CO WATER CAN 5 L	17	4,95	84,15	54,70
Ureztailuak	WN 28010 CO WATER CAN 10 L	17	9,05	153,85	100,00
Aitzur handia	Azada 2A	20	17,5	350	227,50
Aitzur handia	Azada 3A	20	19,85	397	258,05
Aitzur txikia	Azadilla 232-A	15	11,95	179,25	116,51
Aitzur txikia	Azadilla 242- OAZ	15	11,85	177,75	115,54
Aitzur handien kirtena	Mango azada M4-900 (para azadas 2A y 3A)	40	6,85	274	178,10
Aitzur txikien kirtena	Mango azadilla M1-900 (para azadilla 232-A)	15	5,65	84,75	55,09
Aitzur txikien kirtena	Mango azadilla M0-900 (para azadillas 242- OAZ)	15	5,4	81	52,65
Sardea	Horca espiga 902-4 M.A.	10	39,55	395,5	257,08
Sardea	Horca cavar espiga 9111-4 M.A.	10	40,4	404	262,60
Pala punta borobila	Pala 5501-2 MM	5	15,65	78,25	50,86
Pala punta zuzena	Pala 5502-2 MM	1	16,05	16,05	10,43
Palerra	Palote 5604-24 M.M.	20	41,65	833	541,45
Erratza	BM 61002 CO Oepillo MA ML	20	24,75	495	321,75
Balde	BK 24026 CO GARDEN BASKET 26 L	15	7,1	106,5	69,23
Eskoarea	Rastrillo Hobby 952-12	5	4,85	24,25	15,76
Eskoarea	Rastrillo Hobby 952-14	5	5,05	25,25	16,41
Platikozko eskoarea	Escoba de plástico 32" 3034-32	5	13,25	66,25	43,06
Kirtena	Mango de madera para rastrillo M952	5	5,43	27,15	27,15
Kirtena	Mango de madera para rastrillo M952 L- 1500	5	5,93	29,65	29,65
Kirtena	Mango escoba de plástico M3 034	5	5,23	26,15	26,15
Kimaketarako guraizeak	Tijera de podar 3501-20	10	8,7	87	56,55
Denatara (BEZ-a gabe)					3.444,82
% 21 BEZ-a					723,41
ERREMINTAK	BEASAINGO BARATZE PARKEKO ERREMINTEN KOSTE TOTALA				4.168,23

Comentado [A1]: Behin betiko partzela kopurua jakindakoan, egokitu beharra

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE eta ARALAR).
Aurkako botoak: 2 (EAJ, H1)
Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Hitzarmenaren edukia onartzea, kontsideratuz 48 areari eman behar zaion baraztetako erabilera, printzipioz 3 urtetakoa izango dela eta ondoren erabilera horrekin jarraitzea, eremuaren garapen urbanistikoaren baitan geratuko dela.

Bigarren. Alkatea jaunari baimena ematea, hitzarmena sinatu ahal izateko.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, arratsaldeko zortziak hogeit gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.